

# udala

Euskadiko Udalen Elkartearen  
BULETIN MONOGRAFIKOA

175. zk. · 2024ko azaroa

Udal Finantzaketa  
Udalen partaidetza  
zerga itunduetan  
2024-2025

**EUDEL**



# EUDEL

EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA  
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

[www.eudel.eus](http://www.eudel.eus)

Harpidetu EUDELen Newsletterra: <https://noticias.eudel.eus/eu/>

# Udala

Euskadiko Udalen Elkartearen  
BULETIN MONOGRAFIKOA

Ercilla 13 | 48009 BILBAO  
Tel.: 94 423 15 00  
e-mail: [eudel@eudel.eus](mailto:eudel@eudel.eus)



## Euskadiko Udalerrien ordezkariak

### Herri Dirubideen Euskal Kontseilua

**Esther Apraiz**, DERIOko alkatea (EUDELeko elkarteburua)

**Nagore Alkorta**, AZPEITIKo alkatea (EUDELeko elkarteburuordea)

**Nati López de Munain**, BURGELUKo alkatea (EUDELeko Batzorde Eragileko kidea)

### Finantzen Lurralde Kontseiluak

Araba Lurraldeko Toki Administrazio eta Finantzen Kontseilua

**Javier Gallego**, ERRIBERAGOITIKo alkatea

**Jon Escuza**, OKONDOKo alkatea

**Juan José Betolaza**, PEÑACERRADA-URIZAHARreko alkatea

**Raúl García**, LAGUARDIAko alkatea

**Erika Letamendi**, DONEMILIAGAKo alkatea

**Juan Ignacio Armentia**, VITORIA-GASTEIZko zinegotzia

**Xabier Álvarez de Arcaya**, URKABUSTAIZko alkatea

Bizkaiko Finantzen Lurralde Kontseilua

**Marta Ajuria**, BILBOKo zinegotzia

**Ainhoa Salterain**, AMOREBIETA-ETXANOKo alkatea

**Garbiñe Sáenz de Buruaga**, ISPASTERko alkatea

**Mikel Urrutia**, ABADIÑOko alkatea

**Miguel Ángel Gómez**, TRAPAGARANGo alkatea

Gipuzkoako Finantzen Kontseilua

**Aizpea Otaegi**, ERRENTERIAko alkatea

**Adur Ezenarro**, ORDIZIAko alkatea

**Iñaki Ostolaza**, ZUMAIAKo alkatea

**Kerman Orbegozo**, DONOSTIAko zinegotzia

**Jon Iraola**, EIBARKo alkatea

## 175. zk. Aurkibidea · 2024ko azaroa

**Herri Dirubideen Euskal Kontseilua**04 

<b>Euskal Foru Ogasunen zerga itunduen diru-bilketa</b> .....	<b>04</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Diru-bilketaren 2024ko aurreikuspena (aurrelikidazioa).</li> <li>• 2025erako aurrekontu-aurreikuspena.</li> <li>• Euskal Foru Ogasunen zerga Itunduen diru-bilketaren bilakaera (2006 – 2025).</li> <li>• Egokitzapenerako Funts Orokorraren 2025eko ekitaldirako behin-behineko zenbatekoa zehaztea.</li> <li>• 2025eko ekitaldirako koefiziente horizontalak zehaztea.</li> </ul>	
<b>Aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren arloko erakunde arteko akordioa</b> .....	<b>08</b>
<b>Euskadiko Administrazio Publikoen 2025erako Aurrekontu Orokorrak egiteko jarraibideak</b> .....	<b>09</b>

**Finantzen Lurralde Kontseiluak**10 

<b>Udal Finantzaketarako Foru Funtsak</b> .....	<b>10</b>
<b>Arabako toki-erakundeak</b> .....	<b>12</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• 2024ko aurrelikidazioa.</li> <li>• 2025erako aurrekontua.</li> <li>• Obra eta Zerbitzuen Foru Plana eta Auzo Harremanak Sustatzeko eta Obra Txikiak Egiteko Laguntzen Programa.</li> </ul>	
<b>Bizkaiko udalak</b> .....	<b>14</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• 2024ko aurrelikidazioa.</li> <li>• 2025erako aurrekontua.</li> </ul>	
<b>Gipuzkoako udalak</b> .....	<b>15</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• 2024ko aurrelikidazioa.</li> <li>• 2025erako aurrekontua.</li> </ul>	

**Udal Finantzaketako Foru Funtsak, biztanleko, eurotan adierazita**16 **Eranskinak**18 

- I. Araba: TEFFren banakako kopuruak.
- II. Bizkaia: Udalkutxaren banakako kopuruak.
- III. Bizkaia: Gizarte Zerbitzuen Funtsaren banakako kopuruak.
- IV. Gipuzkoa: Udalen Finantzaketarako Foru Funtsaren banakako kopuruak.

HERRI DIRUBIDEEN EUSKAL KONTSEILUA

# Euskal foru ogasunen zerga itunduen diru-bilketa

Joan den urriaren 15eko Herri Dirubideen Euskal Kontseiluan onetsi ziren, besteak beste, zerga itunduen diru-bilketaren 2024ko aurreikuspena eta 2025erako aurrekontu-aurreikuspena, 2024rako koefiziente horizontalen eta Foru Aldundiek Eusko Jaurlaritzari egin beharreko ekarpenen zehaztapena eta 2025erako Egokitzapenerako Funts Orokorraren behin-behineko zenbatekoa.

## Diru-bilketaren 2024ko aurreikuspena (aurrelikidazioa)


Oro har, aurreikusita dago 2024an zerga itunduen diru-bilketa hasierako aurreikuspena baino % 3,68 txikiagoa izango dela. Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak honako kopuru hauek onetsi ditu, zerga itunduen diru-bilketaren itxiera-aurreikuspenari dagokionez: **(1. Taula)**

1. TAULA

	2024ko aurrekontua €	2024rako bilketaren aurreikuspena €	Aldea €	%
<b>Araba</b>	2.960.419.055	2.822.075.051	-138.344.004	-% 4,67
<b>Bizkaia</b>	9.829.497.485	9.457.743.977	-371.753.508	-% 3,78
<b>Gipuzkoa</b>	6.210.333.460	6.021.119.972	-189.213.488	-% 3,05
<b>EAE guztira</b>	<b>19.000.250.000</b>	<b>18.300.939.000</b>	<b>-699.311.000</b>	<b>-% 3,68</b>

**2024ko zerga-bilketaren aurreikuspena oso positiboa izango zen, eta aurrekontu-aurreikuspenaren gainetik ere egongo zen, Auzitegi Gorenak mutualitateen kotizazioei buruz emandako epaiak betez, pentsiodunei egindako itzulketen eraginagatik izan ez balitz. Aurreikusita dago hasierako aurrekontuan baino % 4,67 gutxiago bilduko dela Araban, % 3,78 gutxiago Bizkaian, eta % 3,05 gutxiago Gipuzkoan.**

1. GRAFIKOA: milioi eurotan / Zerga itunduen diru-bilketa



## 2025erako aurrekontu-aurreikuspena

Halaber, zerga itunduen 2025erako diru-bilketaren aurreikuspenak erabaki ziren. Hurrengo taulan, 2025erako diru-bilketako aurrekontu-aurreikuspen horiek ageri dira, 2024ko aurrekontuarekin alderatuta. **(2. taula)**


2025erako diru-bilketa **% 3,78** handitzea aurreikusi da, 2024ko aurrekontuarekin alderatuta. Lurraldeka, honela banatuta dago: % 2,66 Araban, % 3,59 Bizkaian eta % 4,62 Gipuzkoan.

2. TAULA

	2024ko aurrekontua €	2025erako aurrekontua €	Aldea €	%
<b>Araba</b>	2.960.419.055	3.039.159.817	78.740.762	% 2,66
<b>Bizkaia</b>	9.829.497.485	10.182.335.866	352.838.381	% 3,59
<b>Gipuzkoa</b>	6.210.333.460	6.497.141.207	286.807.747	% 4,62
<b>EAE guztira</b>	<b>19.000.250.000</b>	<b>19.718.636.890</b>	<b>718.386.890</b>	<b>% 3,78</b>


**2025erako diru-bilketaren aurreikuspena 19.700 milioi eurokoa da, 2024ko hasierako aurreikuspena baino % 3,78 handiagoa.**

2. GRAFIKOA: milioi eurotan / Zerga itunduen diru-bilketa



## Euskal foru ogasunen zerga itunduen diru-bilketaren bilakaera (2006-2025)

3. GRAFIKOA: milioi eurotan / Zerga itunduen diru-bilketa



Aurreko grafikoan, zerga itunduetan 2006tik 2025era bitartean bildutako diruaren bilakaera ikus dezakegu. Argitu beharra dago 2024ko datua aurrelikidazioari dagokiola eta 2025ekoa diru-bilketaren aurrekontuari eta gainerako ekitaldietako likidazioei dagozkiela.

2008. eta 2009. urteetan, krisi ekonomikoaren ondorioz, aldi horretako kopururik txikienak bildu ziren; zehazki, **2009. urtean** izan zen **diru-bilketarik** txikiena: **10.792 milioi euro**. Diru-bilketan jasandako eragin negatibo hori Udal Finantzaketarako Foru Funtsen murrizketan nabaritu zen, arrisku partekatuaren printzipioa aplikatu izanaren ondorioz.

**2013ko ekitalditik aurrera, suspertze aldi bat hasi zen**, diru-bilketaren igoera progresibo eta jarraituarekin. 2017az geroztiko goranzko susperraldi nabarmenak 2019ra arte iraun zuen. 2020ko ekitaldian, berriz, COVID-19ak eragindako pandemiaren ondorio ekonomikoek zerga-bilketa urritu zuten, baina 2021az geroztik susperraldi garrantzitsua iritsi zen. Onetsitako datuen arabera, **2024 eta 2025erako 18.300 eta 19.700 milioi euroko diru-bilketa aurreikusten da, hurrenez hurren.**

## 2025eko ekitaldirako Egokitzapenerako Funts Orokorra

Foru Aldundiek ekarpen-koefiziente horizontalatan oinarrituta, egiten dizkiote ekarpenak Eusko Jaurlaritzari, eta ez diru-bilketarekiko guttiz proportzionalki. Lurralde bakoitzeko ekarpen-koefizientearen eta bilketa-koefizientearen arteko aldeak lurralde-disfuntzioak eragiten ditu finantzaketan.

2025erako guztira **177,9 milioi** euroan estimatu diren Egokitzapenerako Funts Orokorraren behin-behineko zenbatekoari egindako ekarpenak, honako hauek dira: **(3. taula)**

3. TAULA:

### EFOari egin beharreko ekarpenak

EFOraiko ekarpenak	2025erako aurreikuspena €
<b>Eusko Jaurlaritza (% 70,81)</b>	<b>126.026.667</b>
<b>Aldundiak eta udalak (% 29,19)</b>	<b>51.951.961</b>
Araba	8.333.094
Bizkaia	26.168.203
Gipuzkoa	17.450.664
<b>GUZTIRA</b>	<b>177.978.628</b>

**Herri Dirubideen Euskal Kontseiluan 2025erako Egokitzapenerako Funts Orokorraren aurreikusitako zenbatekoa 177,9 milioi eurokoa izatea eta Arabako (100,4 milioi euro) eta Gipuzkoako (77,6 milioi euro) lurraldeen artean banatzea erabaki zen.**

4/2021 Legeak 2022-2026 aldirako onetsitako metodologiaren arabera, Egokitzapenerako Funts Orokorra bi tarte bereizitan antolatuko da, eta horien

Egokitzapenerako Funts Orokorrak (EFO) disfuntzio horiek leuntzeko aukera ematen du, eta bermatzen du Euskal Autonomia Erkidegokoak lurralde historiko bakoitzerako diru-bilketa osoan duen parte-hartze erlatiboa, ekarpen-koefiziente horizontalaren % 99raino iritsi daitekeena, Funtsari egindako ekarpena deskontatu ostean.

Egokitzapenerako Funts Orokorraren banaketa honako hau da: **(4. taula)**

4. TAULA:

### EFOtik kobratzekoak, guztira

EFOren banaketa	2025erako aurreikuspena €
Araba	100.413.941
Bizkaia	-
Gipuzkoa	77.564.687
<b>GUZTIRA</b>	<b>177.978.628</b>

muga bateratuak ez du gaindituko aipatutako legearen 4. artikuluan finkatutako eta banatu beharreko baliabideen % 1,45.

**Datu horiekin, Arabako eta Gipuzkoako Foru Aldundien diru-bilketako koefizienteak beraien koefiziente horizontalaren % 99ra iritsi direnez, ez dago Egokitzapenerako Funts Orokorraren bigarren tarte aktibatuko beharrik.**

## Ekarpen-koefiziente horizontalak

Ekarpen-koefiziente horizontalen bitartez egin dira erakunde erkideen kargei eta kupoa zehazteko metodologiaren ondoriozko betebeharrak dagokien Foru Aldundien ekarpena. Horiek ez dira aldatuko ekitaldian zehar, eta ekitaldiko ekarpenak likidatu arte aplikatuko dira, hori bera barne.

2025eko ekitaldirako onetsitako ekarpen-koefiziente horizontalak honako hauek dira:

2025erako ekarpen-koefiziente horizontala	
Araba	% 16,04
Bizkaia	% 50,37
Gipuzkoa	% 33,59

## Aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren arloko erakunde arteko akordioa

Arau fiskalak etenda egon dira lau urtez (2020-2023), Europako Batzordeak Egonkortasun eta Hazkunde Itunaren babes-klausula orokorra aplikatzeko hartutako erabakian oinarrituta, COVID-19aren osasun-krisiak eta, ondoren, Ukrainako gerrak eragindako ondorioak arintzeko. Ondoren, Europako Batzordeak babes-klausula orokorra 2023aren amaieran kentzea erabaki zuen, eta, beraz, **administrazio publikoei aplikatu beharreko arau fiskalak 2024an berraktibatuta geratu dira.**

Foru Aldundien Baliabideak Banatzeko eta Ekarpenak Zehazteko Metodologiari buruzko urriaren 7ko 4/2021 Legearen Bigarren Xedapen Gehigarriarekin bat etorritz, 1. atalean ezartzen baitu Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde

publikoen aurrekontu egonkortasuneko helburuak adostuko dituela, Euskal Autonomia Erkidegorako hartzen diren konpromisoen esparruan, Ekonomia Itunaren 62. artikuluan aurreikusitakoa jarraiki, Herri Dirubideen Euskal Kontseiluan ondorengo akordioa onartu zen:

- Behin Euskadiren eta Estatuko Administrazioaren artean aldebiko akordioa lortu ondoren, ekitaldiko foru-aldundien baterako defizitaren helburuen lurralde banaketa ekitaldi bakoitzean onartutako ekarpen-koefiziente horizontalen arabera egingo da.
- Foru-aldundien epe luzeko zorpetzea bat etorriko da ekitaldi bakoitzerako onartutako defizit helburuarekin.



# Euskadiko Herri Administrazioen 2024. urterako Aurrekontu Orokorrak prestatzeko jarraibideak

2025eko ekitaldiko kontu publikoak egiteko, neurri handi batean, kanpoko ziklo ekonomikoak baldintzatuko du, euskal ekonomiaren tamaina eta irekiera-maila kontuan hartuta. Ildo horretan, OECDko (Organization for Economic Co-operation and Development) ekonomiaren bilakaera egonkorra izango dela aurreikusten da, eta Europako ingurunea hobetuko dela datorren urterako. Bestalde, Estatuko ekonomiaren ekarpena positibotzat jotzen da, aurreikuspen onak dituelako. Hala, EAEko 2024rako BPGaren hazkunde zenbatetsia % 1,9 izango da, eta 2023rako batez besteko hazkunde % 1,8

izango da. 2025. urterako EAEko ekonomia % 2,1 haztea aurreikusten da, hazkunde % 2ko mugatik hurbil edo hortik gora egongo dela dioten aurreikuspen guztiekin bat etorritz.

2025erako, defizitaren eta zorraren arloan euskal administrazio bakoitzari dagozkion konpromisoen esparruan, eta Europako Batzordeak zerga politikaren koordinazioari buruz emandako orientabideekin bat etorritz, aurrekontu-agertokiek honako irizpide ekonomiko hauek hartuko dituzte kontuan gastuei eta zorpetzeari dagokienez:

## Zorpetzea:

Oinarritzat hartuko dira aurrekontu egonkortasunaren eta finantza-jasangarritasunaren arloan ezarritako araudia eta EIBMko erabakiak; hau da, aurrekontu egonkortasunaren eta zor publikoaren helburuak betetzea.

### Zor Publikoaren interesak eta amortizazioa

Zor publikoaren interesak eta amortizazioa kuantifikatzeari dagokionez, dagokien aurrekontua zenbatetsitako kopuruaren arabera zehaztuko da.

## Gastuak:

### Langile-gastuak: aurrekontuplantillak eta ordainsariak

Euskal administrazio publikoetako funtzionarioen, lan-kontratuko langileen eta behin-behineko langileen aurrekontu-plantillak, bai eta zuzenbide pribatuaren mende dauden erakundeetakoak ere, izaera mugatzailea izango dute irizpide orokor gisa.

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen zerbitzura diharduten funtzionarioen, lan kontratuko langileen eta aldi baterako langileen ordainsarien baldintzak 2025erako Aurrekontuen Legean edo Foru Arauetan zehaztutakoak izango dira.

**Funtzionamendu-gastuak eta Transferentzia arruntak.**

### Funtzionamendu-gastuak eta Transferentzia arruntak.

Administrazio instituzionaletako erakundeei egindako transferentziak aurreko atalean jasotako orientazioak kontuan hartuta kalkulatu dira, langile-gastuak finantzatzeari dagokionez.

Euskal Administrazio Publikotako Sail, Erakunde Autonomo eta gainerako

Erakundeek jarraibide hauetan zerrendatutako erronkei aurre egitera bideratuko dituzte diru-laguntzen gastu politikak.

### Inbertsio errealak, kapitaleko dirulaguntzak eta finantza-aktiboan aldaketa

Aurreko ekitaldietako betebeharrak dituzten jarduketan kredituak hornituko dira. Planteamendua urte anitzeko etorkizuneko plangintza baten barruan egingo da, lehen aipatutako erronkek eragindako trantsizioei aurre egiteko.

### Sektore Publikoko erakundeak

Ez da sektore publikoko erakunde berriak sortuko.

**FINANTZEN LURRALDE KONTSEILUAK**

# Udal finantzaketarako foru funtsak

Lurralde bakoitzeko Finantzen Lurralde Kontseiluen bileretan, tokiko partaidetza zehaztu da zerga itunduen diru-bilketa aurreikustean, Udal Finantzaketarako Foru Funtsak izenekoetan: Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsa (**TEFFF**) Araban, **Udalkutxa** Bizkaian eta Udal Finantzaketarako Foru Funtsa (**UFFF**) Gipuzkoan.

Hiru lurraldeetako Finantzen Lurralde Kontseiluetan emandako informazioaren arabera, Udal Finantzaketarako Foru Funtsen **2024ko likidazioaren aurreikuspena** honako hau da: **(5. taula)**

5. TAULA

	2024ko aurrekontua € (1)	2024rako aurrelikidazioa € (2)	Aldea € (2)-(1)	% (2)/(1)
<b>Araba-TEFFF</b>	277.057.082	267.484.845	-9.572.237	-% 3,45
<b>Bizkaia-Udalkutxa</b>	1.082.660.691	1.042.147.212	-40.513.479	-% 3,74
<b>Gipuzkoa-UFFF</b>	651.721.779	629.482.259	-22.239.520	-% 3,41
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.011.439.552</b>	<b>1.939.114.316</b>	<b>-72.325.236</b>	<b>-% 3,60</b>

Mutualitateen kotizazioei buruz Auzitegi Gorenak emandako epaiak betez, pentsiodunei egindako itzulketen inaktuak diru-bilketa txikiagoa eragin du Udal Finantzaketarako Foru Funtsen aurrelikidazioan, arrisku partekatuaren printzipioa aplikatzearen ondorioz. Foru-funtsak 1.939 milioi eurora iristea aurreikusten da hiru lurralde historikoetarako, hasieran aurreikusitako konturako ekarpenak baino % 3,60 gutxiago.

Aurrelikidazioaren datuek ekitaldiko konturako ekarpenetan ondoriorik ez dute, eta 2025eko otsailean egingo den likidazioaren zain egon beharra dago; dena den, datu hori ezagutzea erabakigarria da aurrekontu-kudeaketa hobea egin ahal izateko. Eranskinetan, udal bakoitzerako banakako kopuruak kontsulta daitezke.

Udal Finantzaketarako Foru Funtzen **2025. urterako aurrekontu-aurreikuspena** honako hau da: **(6. taula)**

6. TAULA

	2024ko aurrekontua € (1)	2025erako aurrekontua € (2)	Aldea € (2)-(1)	% (2)/(1)
<b>Araba-TEFFF</b>	277.057.082	289.983.110	12.926.028	% 4,67
<b>Bizkaia-Udalkutxa</b>	1.082.660.691	1.120.249.883	37.589.192	% 3,47
<b>Gipuzkoa-UFFF</b>	651.721.779	673.665.371	21.943.592	% 3,37
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.011.439.552</b>	<b>2.083.898.364</b>	<b>72.458.812</b>	<b>% 3,60</b>

**2025erako Foru Funtsetarako aurreikusitako 2.084 milioi euroek, oro har, aurreko ekitaldiko aurrekontuekiko % 3,60ko igoera eragin dute, eta % 7,47ko hazkundera, 2024ko aurrelikidazioarekin alderatuta.**

**Udalek 2025erako Udal Finantzaketarako Foru Funtzen aurreikuspena erabiliko dute hurrengo ekitaldiko aurrekontuak egiteko. Eranskinetan udal bakoitzerako banakako kopuruak kontsulta daitezke.**

# Arabako toki-erakundeak

Arabako Toki Administrazio eta Finantzen Lurralde Kontseiluan (ATAFLK), urriaren 22an egindako bileran, 2024ko aurrelikidazioaren eta TEFFFren 2025erako aurrekontu-aurreikuspenaren berri eman zuten.

## 2024ko aurrelikidazioa

ATAFLKren datuen arabera, 2024ko likidazio-aurreikuspena **267,5 milioi eurokoa da**, hots, **% 3,45ko jaitsiera**, hasierako aurrekontuarekin alderatuta. **(7. taula)**

7. TAULA

	2024ko aurrekontua € (1)	2024rako aurrelikidazioa € (2)	Aldea € (2)-(1)	% (2)/(1)
<b>Araba-TEFFF</b>	277.057.082	267.484.845	-9.572.237	-% 3,45

**2024ko itxierako aurreikuspen-datuak 2025eko otsailean berretsiz gero, 267,5 milioi eurokoa izango litzateke, hau da, % 3,45ko jaitsiera, 2023ko konturako ekarpenekin alderatuta. Aurrelikidazioaren banakako kopuruak toki-erakunde bakoitzari banatzean, 5.168.000 euro gehiago gehitu behar zaizkio, Foru Aldundiaren aurrekontuak ematen duen TEFFFren funts osagarritik datozenak.**

**Gizarte Zerbitzuen Funtzari dagokionez, itxierako aurreikuspena 2,78 milioi eurokoa da.**



## 2025erako aurrekontua

TEFFren 2025erako aurrekontu-aurreikuspena **289,9 milioi eurokoa** da; beraz, 2024ko hasieran aurreikusitako aurrekontu-aurreikuspena baino **% 4,67 handiagoa**. (8. taula)

**2025erako TEFFren aurrekontu-aurreikuspena 289,9 milioi eurokoa da, hau da, % 4,67ko igoera, aurreko ekitaldiko aurrekontuarekin alderatuta, eta % 8,41ko igoera, 2024ko aurrelikidazioarekin alderatuta.**

8. TAULA

	2024ko aurrekontua € (1)	2025erako aurrekontua € (2)	Aldea € (2)-(1)	% (2)/(1)
<b>Araba-TEFF</b>	277.057.082	289.983.110	12.926.028	% 4,67

**Halaber, aurreikusita dago 2025ean 2,8 milioi euro bideratzea Gizarte Zerbitzuen Funtsara.**

## Obra eta Zerbitzuen Foru Plana eta auzo harremanak sustatzeko eta obra txikiak egiteko laguntzen programa

2023ko otsailaren 1ean ALHAOn argitaratutako 3/2023 Foru Dekretuaren arabera, Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren (OZFP) dirulaguntzetarako konpromisoak, 2024 eta 2025eko ekitaldietarako onartuak, 18.311.571 eurokoak dira urteko bakoitzerako. Hala ere, ATAFKkn jakinarazi zen OZFP 19.389.126 eurokoa eta 20.286.805

eurokoa izango dela 2024ko eta 2025eko ekitaldietan, hurrenez hurren.

Era berean, ATAFKkn jakinarazi zen obra txikiak eta auzo-harremanetarako ekimenak egiteko laguntza-lerroa 2.615.993 eurokoa eta 2.737.109 eurokoa dela 2024an eta 2025ean, hurrenez hurren.

(Plan horiek ez daude arrisku partekatuen mende, eta, beraz, hasieran esleitutako kopuru berak bermatuko dira).

# Bizkaiko udalak

Bizkaiko Finantzen Lurralde Kontseiluan, urriaren 17an egindako bileran, 2024ko aurrelikidazioaren eta Udalkutxaren 2025erako aurrekontu-aurreikuspenaren berri eman zen.

## 2024ko aurrelikidazioa

Bizkaiko Finantzen Lurralde Kontseiluaren datuen arabera, 2024ko likidazio-aurreikuspena **1.042 milioi eurokoa** da, hots, hasierako aurrekontua baino **% 3,74 txikiagoa**. (9. taula)

9. TAULA

	2024ko aurrekontua € (1)	2024rako aurrelikidazioa € (2)	Aldea € (2)-(1)	% (2)/(1)
<b>Bizkaia-Udalkutxa</b>	1.082.660.691	1.042.147.212	-40.513.479	-% 3,74

**2024ko itxierako aurreikuspen-datuak 2025eko otsailean berretsiz gero, udalek 40,5 milioi euro itzuli beharko lituzkete. (Ikusi II. eranskina)**

**Gizarte Zerbitzuen Funtsari dagokionez, itxierako aurreikuspena 9,8 milioi eurokoa da. Funts hori mendekotasun-irizpideen arabera banatzen da, eta Udalkutxa funtsarekin batera ere likidatuko da. (Ikusi III. eranskina)**

## 2025erako aurrekontua

Udalkutxak **1.120 milioi euroko** aurrekontu-aurreikuspena izango du 2025erako, 2024rako aurreikusitako aurrekontua baino **% 3,47 handiagoa**. (10. taula)

**Udalkutxaren 2025erako aurrekontu-aurreikuspena 1.120 milioi eurokoa da, hau da, % 3,47ko igoera, 2024ko aurrekontuarekin alderatuz, eta % 7,49ko igoera, aurrelikidazioarekin konparatuz. (Ikusi II. eranskina)**

10. TAULA

	2024ko aurrekontua € (1)	2025erako aurrekontua € (2)	Aldea € (2)-(1)	% (2)/(1)
<b>Bizkaia-Udalkutxa</b>	1.082.660.691	1.120.249.883	37.589.192	% 3,47

**Era berean, lurralde historikoko udalek, 2025ean, Gizarte Zerbitzuen Funtsetik 10,5 milioi euro jasoko dituztela aurreikusita dago. (Ikusi III. eranskina)**

# Gipuzkoako udalak

Gipuzkoako Finantzen Lurralde Kontseiluan, urriaren 16an egindako bileran, 2024ko aurrelikidazioaren eta Udal Finantzaketarako Foru Funtzaren (UFFF) 2025erako aurrekontu-aurreikuspenaren berri eman zen.

## 2024ko aurrelikidazioa

Gipuzkoako Finantzen Lurralde Kontseiluaren datuen arabera, **629,5 milioi eurokoa** da likidazio-aurreikuspena, hau da, hasierako aurrekontua baino % 3,41 gutxiago. **(11. taula)**

11. TAULA

	2024ko aurrekontua € (1)	2024rako aurrelikidazioa € (2)	Aldea € (2)-(1)	% (2)/(1)
<b>Gipuzkoa-UFFF</b>	651.721.779	629.482.259	-22.239.520	-% 3,41

**2024ko itxieraren aurreikuspen-datuak berretsiz gero, zenbateko hori 629,5 milioi eurokoa izango litzateke, eta udalek 22,2 milioi euro itzuli beharko lituzkete, ekitaldian jasotako konturako ekarpenetatik. (Ikusi IV. eranskina).**

## 2025erako aurrekontua

UFFFren 2025erako aurrekontu-aurreikuspena **673,7 milioi eurokoa** da; beraz, 2024rako hasieran aurreikusitako aurrekontua baino % 3,37 handiagoa. **(12. taula)**

**UFFFren 2025erako aurrekontu-aurreikuspena 673,7 milioi eurokoa da, hau da, % 3,37ko igoera, 2024ko aurrekontuarekin alderatuz, eta % 7,02koa, 2024ko aurrelikidazioarekin konparatuz.**

12. TAULA

	2024ko aurrekontua € (1)	2025erako aurrekontua € (2)	Aldea € (2)-(1)	% (2)/(1)
<b>Gipuzkoa-UFFF</b>	651.721.779	673.665.371	21.943.592	% 3,37

**1.100 biztanle arteko udalerrien finantzaketa handitu egingo da 2025etik aurrera.**



2024. urtearen hasieran, Gipuzkoako Lurralde Batzordeak azterlan bat egin zuen, eta Foru Aldundiari aurkeztu zitzaion, 15/1994 Foru Arauaren aldaketan elkarrekin lan egiteko. Erakundeen

arteko adostasunaren eta lankidetzaren ondorioz, Foru Arauaren aldaketa gauzatu da, eta orain bai bermatzen du 1.100 biztanle arteko udalerrien artean UFFFren ehuneko 1,2 banatzea. (Ikusi IV. eranskina).

# Udal finantzaketako foru funtsak, biztanleko, eurotan adierazita

Ondorengo grafikoko datuak ulertzeko, puntu hauek hartu behar dira kontuan:

- (1) **Foru Funtsen likidazioetatik eratorritako datuak** dira, eta, beraz, ez dira kontuan hartu lurralde bakoitzean likidazio negatiboak itzultzeko akordioak.
- (2) **Biztanleria-iturria: INE.** Biztanleria-zifrak dagokion ekitaldiko urtarilaren 1eko zifra ofizialak dira. 2024ko eta 2025eko ekitaldietarako, 2023ko urtarilaren 1eko biztanleriaren zifra ofizialak hartu dira kontuan.
- (3) Gipuzkoan 2011n, hiru lurraldeetan 2012an eta 2013an, Bizkaian 2014an, eta Araban 2015ean eta 2016an egindako likidazioetan **berreskuratutako opor fiskalak** jaso dira. Era berean, 2013ko likidazioan jasota dago udalei dagokien zenbatekoa, Eusko Jaurlaritzak **Gipuzkoari (7,8 milioi euro) eta Arabari (2,2 milioi euro)** balantzeak eguneratzearen ondorioz bilketagatik ordaintzen dien **konpentsazioaren** kontzeptu gisa.
- (4) 2017ko likidazioetan, Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak **lurralde historikoei emandako konpentsaziotik** eratorritako kopuruak jasota daude, Kontzertu Ekonomikoaren Batzorde Mistoak hartutako erabakiak eredian sartzeak Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeetan izan dezakeen eragina neutralizatzeke.
- (5) 2018ko ekitaldian sartuta dago Eusko Jaurlaritzaren eta Bizkaiaren artean **Arabari (1.613.112 euro) eta Gipuzkoari (4.041.029 euro)** ordaindu zieten **aparteko konpentsazioa**.
- (6) 2022tik aurrera, Gizarte Zerbitzuen Funtsa sartu da.
- (7) 2023ko ekitaldian, kreditu- eta energia-erakundeen aldi baterako kargak sartzen dira.

(8) Lurralde bakoitzak baliabide erabilgarrien ehuneko desberdina bideratzen du udal finantzaketarako:

- 2021era arte honako hauek izan ziren: **TEFFFrena % 52,3koa izan zen eta 2018tik aurrera % 52,8koa** (gainerako % 3,7 Obra eta Zerbitzuen Foru Plana da, eta gainerako % 0,5, berriz, euro/biztanleko ratio kalkuluan kontuan hartzen ez diren Obra txikien eta bidexken plana da). **Udalkutxarena % 56koa da, eta Gipuzkoako UFFFrena % 58koa** (2011n % 57koa, 2012an % 57,5ekoa eta 2013az geroztik % 58koa).
- Baliabideak banatzeko eta foru-aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak zehazteko metodologiari buruzko urriaren 7ko 4/2021 Legea onartu ondoren, 2022-2026 aldian aplikatu beharrekoa, lurralde bakoitzean banatu beharreko gutxienekoa baliabide erabilgarrien % 39,23 izanik, hauek dira 2022tik aurrerakoak:


<b>ARABA (TEFFF)</b> .....	<b>% 39,23</b>
TEFFF.....	% 35,98
Obra eta Zerbitzuen Foru Plana .....	% 2,55
Obra txikiak eta auzo harremanak.....	% 0,34
Gizarte Zerbitzuen Zorro Funtsa.....	% 0,36
<b>BIZKAIA (Udalkutxa)</b> .....	<b>% 39,66</b>
Udalkutxa.....	% 39,29
Gizarte Zerbitzuen Zorro Funtsa.....	% 0,37
<b>GIPUZKOA (UFFF)</b> .....	<b>% 39,96 (*)</b>

(\*) Gizarte Zerbitzuen Zorro Funtsak osatzen du.



## Foru Funtsen likidazioa

4. GRAFIKOA: euro/biztanle



	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024 (Aurrelik.)	2025 (Aurrek.)
<b>Araba</b>	516	539	585	560	599	617	649	698	710	620	741	780	824	803	870
<b>Bizkaia</b>	634	656	634	653	641	664	703	756	777	661	789	840	905	911	980
<b>Gipuzkoa</b>	504	539	543	586	610	626	651	714	732	663	802	812	854	865	925
<b>EAE</b>	<b>575</b>	<b>600</b>	<b>597</b>	<b>618</b>	<b>625</b>	<b>645</b>	<b>678</b>	<b>734</b>	<b>752</b>	<b>656</b>	<b>786</b>	<b>822</b>	<b>876</b>	<b>880</b>	<b>945</b>

# I. Eranskina

## TEFFF - Arabako udalerriak

2024ko konturako ekarpenak / aurrelikidazioa eta konturako ekarpenen 2025erako aurreikuspenen banakako kopuruak.

\* eurotan

UDALA	2024ko konturako ekarpenak (1)	2024ko aurrelikidazioa (2)	Aldea (2) - (1)	% (2)/(1)	2025erako behin-behineko hasierako partaidetzaren aurreikuspena (3)	Aldea (3)-(1)	% (3)/(1)
AGURAIN/SALVATIERRA	3.843.753	3.711.044	-132.709	-% 3,45	3.950.077	106.324	% 2,77
ALEGRÍA-DULANTZI	1.942.996	1.876.273	-66.724	-% 3,43	1.996.454	53.458	% 2,75
AMURRIO	7.200.422	6.951.123	-249.298	-% 3,46	7.400.157	199.736	% 2,77
AÑANA	124.716	121.118	-3.598	-% 2,88	127.598	2.883	% 2,31
ARAMAIO	981.106	947.782	-33.325	-% 3,40	1.007.805	26.699	% 2,72
ARMIÑON	110.113	107.017	-3.097	-% 2,81	112.594	2.481	% 2,25
ARRAIA-MAEZTU	358.211	346.493	-11.719	-% 3,27	367.601	9.389	% 2,62
ARRATZUA-UBARRUNDIA	663.618	641.304	-22.313	-% 3,36	681.495	17.877	% 2,69
ARTZINIEGA	1.233.572	1.191.481	-42.091	-% 3,41	1.267.295	33.722	% 2,73
ASPARRENA	1.068.196	1.031.839	-36.357	-% 3,40	1.097.325	29.129	% 2,73
AYALA/AIARA	1.372.145	1.325.183	-46.962	-% 3,42	1.409.773	37.628	% 2,74
BAÑOS DE EBRO/MAÑUETA	193.200	187.224	-5.976	-% 3,09	197.987	4.788	% 2,48
BARRUNDIA	388.690	375.910	-12.780	-% 3,29	398.929	10.240	% 2,63
BERANTEVILLA	215.025	208.281	-6.744	-% 3,14	220.428	5.403	% 2,51
BERNEDO	227.966	220.773	-7.193	-% 3,16	233.730	5.764	% 2,53
CAMPEZO/KANPEZU	552.495	534.027	-18.469	-% 3,34	567.293	14.798	% 2,68
ELBURGO/BURGELU	271.969	263.247	-8.723	-% 3,21	278.959	6.989	% 2,57
ELCIEGO	605.113	584.840	-20.273	-% 3,35	621.355	16.242	% 2,68
ELVILLAR/BILAR	213.021	206.357	-6.664	-% 3,13	218.360	5.339	% 2,51
ERRIBERAGOITIA/RIBERA ALTA	360.361	348.568	-11.793	-% 3,27	369.810	9.449	% 2,62
HARANA/VALLE DE ARANA	115.894	112.598	-3.296	-% 2,84	118.535	2.641	% 2,28
IRUÑA OKA/IRUÑA DE OCA	1.752.209	1.692.038	-60.171	-% 3,43	1.800.420	48.211	% 2,75
IRURAZ-GAUNA	222.100	215.110	-6.990	-% 3,15	227.701	5.601	% 2,52
KRIPAN	127.731	124.028	-3.703	-% 2,90	130.697	2.967	% 2,32
KUARTANGO	196.066	189.982	-6.084	-% 3,10	200.941	4.874	% 2,49
LABASTIDA/BASTIDA	1.164.395	1.124.711	-39.684	-% 3,41	1.196.188	31.793	% 2,73
LAGRÁN	88.417	86.075	-2.342	-% 2,65	90.294	1.877	% 2,12
LAGUARDIA	1.097.071	1.059.716	-37.355	-% 3,40	1.126.999	29.928	% 2,73
LANCIEGO/LANTZIEGO	429.451	415.274	-14.177	-% 3,30	440.809	11.358	% 2,64
LANTARÓN	419.172	405.331	-13.840	-% 3,30	430.261	11.090	% 2,65

